

Erbestetik dator erakusia

Erlik bakarrik ez dira uda partean kanpotik etxera eroaten dakien bakarrak. Erbestetik etortzen jakuzen jakutanak be badakite horrenbeste. Gu, geu gara, gaur egun leikiaria biharko lagatzen dugonak.

Igaz, Euskalariari Nazioarteko Jardunaldietera etorri zan Jan Braun, poloniarra, ondo aprobetxatu eban bere egonaldia. Jardunaldien aste hairetatik kanpo hiru edo lau egun gelditzen jakozen eta bere gorpuzari eta buruari deskantsurik emon barik han joan zan Aramaio aldera mangnetofonos ahozko literaturatik zer bait jaso guran. Lapurtera aspalditik zekilan poloniarra eta pare bat urte lehenago hasi zan Pedro Pujanaren gramatikaz bizkiera ikasten. Atzeritarrok ez dauke inongo aberki. Eta bai batu be ahoz ahozko literatura uzta ederrik.

Aramaioko agure bati jasotako kanta batan, J.B. Elizabarburerean "Nere etxea" dalakoaren zati aldatuak erakusten deskue erromantikotasunak gure herrian daukan iraupena; baina, baita Txirritareren "Gure aurreko gurao zarrak" dalakoarenak be, galdu genduzen soruak ezin ahazturik, Oletako artizan baten ahotik. Beste zati batzuk, galdutako kanten azizkarnak besterik ez dira. Inguru berean eta era hortakoa honako hau: "Bizkaito parte batean, Anboto partian, Anboto partian, Ibi bizi ziran euren alderdian,... gizon biak ziran, Peru eta Anton)/emakumiak berriz, Ana ta Katalin,/aurre alde guztian bizirik Anboto./ Artorik apezan du etxian ikusi, etxian ikusi./ urreguan obeto gizendu ta azi."

Hasierako irudiak epiko antza daueta bere amaiera hori baino zer bait egokiagoa zeukan antza duenaz. Pastore berak kontatu eusaz; "Erliak bere uran (udan) kanpotik etxera errotan du, harek badakia bere burua neguan zelan mantendu; guk here berriz sobra genduke ori egingo bagendu".

Esaera zaharrak bere lortu zituan. Hara hemen enprelu batzuk:

- 1) Anbotoko helie Anbotora.
- 2) Amillena, fraka zarren billa dabilena.
- 3) Aloña azpian leñue, bixer almiña ezin ue.
- 4) Arantza halza lora, bei zarra ankaz gora.
- 5) Lora arantzie, lora artuek erreitien flora.
- 6) Kandelarietan edurre, juan da neguan bildurre.
- 7) Kandelarietan eguzki, negu' al dator atziti?

Esaldi bakotzak here, filosofia. Herriaren erotik gizonan sena.

Gure aintzinaokoe memoria bizkorizko azmatzen zituen mnemotechia horretatik here be ez da falta Jan Braun-en batze horretan. Hain ezaguna dogun "Akerra ikusi dogu" dalakoaren antzeko bat, aldakuntzezag jaso eban:

"Akerra etorri jakun ortura aza jaten, akerrak ortue, y akerra ken, akerra ortuti kentzearren, txakurra etorri jakun, akerra kenduten.

Txakurrak akerra, yakerrak ortue, yakerra ken, akerra ortuti kentzearren... "eta akerra.

Oletako artizan hori apezan zen karlitza eta kantatu eusazen bereak eta bi karlisten lepotik barre eginaz: "Bermeko kalkan, kalkan, kalkan, karlitak saltzen dira pezeta batian. Nauke bai erosiko, naukez bai, nauke (bai) erosiko, nauke bai, aurixe danian zapata garbitzeko pezeta batian."

Umorerik falta ez jakonez, erromeritarok koplak be kantu eusazen. Bertan agertzen dan Orraberatako Bizente be karlitza eta zan? Beintza, haren lepotik be barre egin gura dau. Haze adarjotea, Poloniuko puntan emzun art, Lauko naiz seiko, euren puntuak errepikatze koak dira:

"Or goiko landetan eperra kanteitan, Orraberatako Bizente bei barrietan. Libriti ta labore, bein gantuzaina, ganau laboretan da nun da ganauzia? Orraberatako Bizente kaka ganauzia. Txarri amie leketan, txarrikumie idarretan, Orraberatako Bizente leporarokoko kaketan. Zariatia, burduntzali, edarra bizigarri, Orraberatako Bizente akerran bekoki."

Pozik joan zan Jan Braun, poloniarra, euskaldun artizai eta nekazariaren ahoetan gure literatura zaharra oinidiorok jardetzen zala jakiteaz. Hortik eroan bere uzta.

Kanpotik etorri behar ete dira ba gure herrian daukuguna jasotera? Tira, euskaldunok ez gaitzen izan Orraberatako Bizenterean garrantzako, bestela kakaizuko gara. Burua aliza ta lanera, gure alderetan badaukagu zer landu ta.

Juan SAN MARTIN

Hace unos meses, con una carta de cumplido, el polaco Jan Braun me acompañaba unos folios con lo que él pudo recoger de nuestra literatura popular durante su breve estancia con motivo de los Encuentros Internacionales de Vascólogos. En nuestro país son muy contadas personas las que hoy se dedican a estos trabajos de recopilación, y por lo general, son las mismas que están ya saturadas en otras actividades culturales en torno al euskara. Son muchísimas más las que encuentran compensación en estériles parafarmacías. Y que estas líneas, sirviendo como ejemplo el breve trabajo de un extranjero, sean para animar a cuantos deseen conocer el acervo de la cultura popular y al propio tiempo contribuir en transcribir la memoria oral a la escrita y tratar de lograr una continuidad en la identidad de nuestro pueblo.

El profesor Jan Braun que vino invitado a los citados Encuentros de 1980, donde leería una ponencia

sober las teorías... disponia únicamente de... libros y los aprovec... zarre a Aramayona y... Oleta y trabajar all... hofun. Entre los de... hay uno que cuenta... rrea los alimentos... a sabiendos que... invierno; ajempro por... los hombres nos f... mos comportamos... He ahi la sabiduria... conviene aprovechar... la vida. El polaco... muy bien el labora... un par de años ha... conocimiento de la... tal del vecino se... material recogido se... que estoy seguro se... partir sus clases de... Universidad de Varso... que antes estaba ha... hortano. Ademias, con... entre coplas y canta... Entre los cantares... poeta J.B. Elizabarbur... Txirria. Cosa marav... y que nos ilustra sob... a través de la transmi... El hecho es que el p... goza de felicidad, ab... todavía permanece v... de la literatura oral... conceptos del tiempo... el podrá guardar pa... fragmentos recogido... vascuence alve.

Una vez más, la loca... desde fuera.

Gerardo López de Gereñu, gizona

Bere lanak irakurri eta aztertzin hasi nitzeneatik bere pertsonalki ezagutzeko iriak hartu ninduen. Liburu eta artikuluak izakera sendo baten jabe izango zela adierazten zitadun, eta honetxez —dudarik gabe— bultzatu ninduen horrengaino. Ez dut, bestalde, ezer berririk aurkitu, era orokor batean, jakina. Aurkikuntza, berriz, neretuz izan da gaur arte ez baintuen Gerardo Lopez de Gereñu ezagutzen. Eta, egia oso, merezi izan du berarengaino jotzeko, berari buruz egindako nituen erizitak txikiak gelditu batira.

Gasteizko alde zaharrekoko kale hestu hoiotako batetan dauka hiru solairutako etxea. Aitari sartu bezain laster hura gizon desberdin batena dela konturatu ahal izan naiz. Urteetan zehar Gerardok egindako argazkiez —bere zaletasun haundia— apaindurik agertzen zaizkigu eskalaretako ornak. Etnografia bere hobbi bihurtu duen arabarraren aurrean aurkitu naiz laster. Hobby diodanean

Gerardoren hitz bat erabiltzen dit. Ez da, halajaina, edozein zaletasun merkerik. Hirurogei eta hamazazpi urteko gizona du lagun, Apirileko 23 batean Frantzia kalean jaioa dena. Nueva Dentro'ko ikasitxe batetara biltzen dute guraoek lehen bizikiak ikastera. Gero —ba dugu zer bait balzuan— Viatoristekin egin zuen Batxilerra. Magistergoko ikasketak egin zituen Gasteizen baina ez du inoiz irakas-kintzan ihardun. "Orain hobeto dago gure ogibide hau; oraingo soldaduz ondo bizi daitezke maixua. Lehen ez; lehen maixuak maixu, sakristau, Udaltzeko idazkari eta baita —askotan— kanpaijolea ere izan behar zuten bizi ahal izateko". Sendiak 1.827tik zeukan aulki toleskorretako lantegia zuzendu behar izan zuen. "Lopez" markako auklari mundu osoa merkaturik lortu zuen. Hogetamar urte eman ditu enpresaren gorabeherak zuzentzen. "Lantegian ikasi eta erabilitako industri antolaketak biziki la-

gunda dit etnologi-irkerketan, metodologiari dagukionez, bates ere". Eta Gerardok beste aitortpen bat egiten dit: ez du bere bizitza osoan tuberna bat ere bistatu. Orain dela hirurogei urte hasi zen bere zaleatasunari aukera ematen. "Nere herrialdearekiko maitasunak eraginda ekin nin lanari". Probintziako Eliza gutziak fotografiatu zituen hasiera batetan, Baina bilduma hau hoba dezakeela deritzaito eta eliza hoiien bistak orokortuz gainera aldatze, irudi eta gainontzeko zehetasun asko fotografiazuten du. Beraz, Arabako herri gutzietan —guztinez— bi aldiz egon dela emen duteke. Sekulako argarki bilduma lortu duenean etxera erretzen zaito 1935.eko Irailan. Sakonki minduko zuen gertaeira honek Gerardo, baina honek, miteit indar berriz irietzen delarik, berriro ekitien du lanari. Honi esker gureguno arxibategi zozagarria da.

Mendigoizale nekoezia da Gerardo —Gasteizko Manuel Iradier taldearen fundatzaile dugun— eta bere ibilaldietan egindako azterketei esker Arabako toki-izen asko bildu ahal izan du. Azkenengo datuek adierazten dutenez, 20.192 dira Lopez de Gereñu probintzian entzun eta liburu zaharretan irakurritako toponimoak. Eta gutxi haur lortu ahal izateko herriarekin bizi behar izan du. Artzain eta nekazariak izan dira Gerardoren lagunak. Eta beti bakarrik egindako irteeretan —"nere bitxikeriak"— gizon arabarra ondo ezagutzeko egokiera izan du. "Arzainek ezin izatekeen datuak zuten paperera pasa. Hobe nuen gogoan hartu eta gero etxean idatz. Apuntatzen ikusten hazintzetaren zalanetan jartzen ziren eta ez zenuen ezer gabirik atzartzen. Gehien batez, zeharka egin behar nuen galdera, zertara nindoan kontura ez litezen. Nekazariekin sistema berdina erabiltzen nuen. Lantadako baserriara burugorruta dela entzun ohi dugu sarri. Baina hau ez da egia. Erabiltzen jokinez gero nekazaria oso pertsona atsegina da".

Dena dela, lana ez du Gerardok beti bain erostuki egin ahal izan.

Behin baino gehiagotan Diputazioko zerga-kobratzaile ote zen galdutako diote, ausmo haundiaz begirutzen ziotelarik. Behinola harrika hartu zuten probintziako herriera batetan. Ofizioaren ordainak! Nolanahi ere, ez du Lopez de Gereñuk, bere lana dela. Eta hau nahiko harrigarria dela dirudi, gure kulturaren alde ihardun dutenak nola izan diren erabiltzak denok baitakigu.

Arabako mendi gutziak zapaldu ditu Gerardok. Herrietarino "Barraiko Renault batetan jouten nintzen", gero oinez ibiltzeko. Aitortu didenez, bere emazte zenarengan —Pilar Yoldi— laguntza handia aurkitu zuen beti. Datuak biltzen artu zen kibratu, sarri, famili osoa iristen zen. Eta hau, jakina, eragingarri zen azterlariarentzat. Sendiaren hitasun honek bere fruitu onik ekarti du eta hoiotako bat bere semearengan ikus dezake Gerardok.

"Voices alavesas" eta "Toponimia alavesa" izeneko lan maridue Euskaltzaindiaren atek zabaltzen dikiote. Euskaltzain Urguzale handia Lopez de Gereñu. Era berean, 1964.rik, RSVAP, elkartearen kide da.

Gerardo Lopez de Gereñu Arabako sorturiko etnologorik haundiena da. "Ez dakit zer den mentian nekazari" altururi zidanean bere lan bikaina nola osatu den uleru ahal izateko beste urrats bat emen nuela usie dit.

Baso eta argazkintzaroko zaletasuna eta, bates ere, Arabarekiko maitasunak gasteiztar honen bizizian bildo berezi bat markatu zuten, Euskal Herriaren onerako. Hildu hiri nola irtatu den ezagutarazten zaitutako naiz hurrengoa.

Jose Mari VELEZ DE MENDIZABAL

MARKETING INDUSTRIAL

Curso del Instituto de la Pequeña y Mediana Empresa Industrial (I.M.P.I.) Para empresario y directivos de la pequeña y mediana industria.

Organizado por: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa, en San Sebastián.

Programa (síntesis): Diagnóstico comercial de la industria; el producto; estructura de los mercados; el departamento de Marketing en la empresa industrial; zonas y rutas de actuación del equipo de marketing; remuneración; gastos de viaje; supervisión; control y evaluación del equipo.

Director: Don Rafael Lorente, profesor Mercantil, Master en Marketing, diplomado por la Universidad de Montreal.

Duración: 36 horas (lunes y miércoles, a partir del 19 de Octubre, de 6,30 a 9,30).

El Instituto de la Pequeña y Mediana Empresa Industrial entregará a los asistentes el correspondiente diploma acreditativo de su participación.

Información: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa, calle Aguirre Miramón, 2 — San Sebastián — Teléfono 27 21 00.

Subvencionado por el I.M.P.I. — Plazas limitadas.